

Xalbadorren eta Che-ren baimenik gabe jarriak

I

“Gora Euskadi Askatuta!”-kin
asko haserre zebiltzan,
ni Josu Jonen hitzetan beste
batzuekin penatu nintzan:
“Txistuak jo dituzque baina
maite zaituztet...” hasi zan,
Internetetik bajatutako
kopia pirata gisan.
Hitzon bihotza bere egin zuen,
nahiz Xalbadorrena izan.



KARLOS CORBELLA

II

Kultur-memoria batek osatzen
du noski gure hitz sena.
Aldiz, bestena merke saltzeak
top-manta dauka izena.
Intentzioan dago kakoa,
nahiz esan egiaz dena.
“Zita” deituko diote baina
“zita” ote Imazena?
marketin bihurtzen baldin badu
lehenago min izan zena...

III

[Zabalduko dut parentesi bat
Imazen hitzei jarraika,
tamalez beste hainbeste esan
dakioke ezkerri-ta,
interesgarri zaizkion gauzez
jabetzen zalea baita:
beretzat edo berak eginak
iruditu arte aipa.
Hortan, eskuina *left* den ez dakit,
ezkerrak du *copyright*-a.]

IV

“A donde van las palabras...” zion
Silviok, gogoan dezute?
...berriro zer bait bihurtzen dira
ala hor, hegan diraute?
Xalbadorrekin oroitu naiz Che-z:
Argazki bat, zenbat putre!
Bere ideia argiek baino
(badira berrogei urte...)
bere aurpegiko itzal zatiek
bide gehiago egin dute.

V

Sierra Maestran, Kongon, Bolivian...
eztanda-lur gordin mapa.
Milan, Cibeles, Paris, New Yorken...
beste flash batzuen txinparta.
Argazki zaharrak duen mamia
perfil hutsarekin tapa:
han izar-gorri, han erdi-bizar
han begirada-min da, ta
kapitalisten e@registroan
Warholen Marilyn bat da.

VI

Hitzen jabego pribaturik ta
irudienik ez dut nahi.
“Zita” errekurtsio-literario da;
birsortzea sortzea, bai;
ados, Artean edozer dela
berrinterpretazio gai;
sortu ez dela deus ere sortzen,
dena airean dagola zai...
Baina inorenak ez diren hoiek
zilegi al dira noiznahi?